

Innobideak-Kudeabide 2019 Programa

<p>Helburua (2. art.)</p>	<p>Kudeaketa hobetzeko proiektuei laguntzea du xedea, proiektuok Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat badatoz eta lehiakortasuna hobetzeko balio badute. Eusko Jaurlaritzak, SPRIK eta EAeko hiru aldundiek kudeatzen duten plan bat da.</p>											
<p>Erakunde Onuradunak (3. art.)</p>	<p>Bizkaiko 5 langile edo gehiago eta 50 langile baino gutxiago dituzten enpresak, jarduera hauek egiten badituzte: erauzketako, eraldaketako eta ekoizpeneko industria-jarduerak; ekoizpen-prozesuari lotutako zerbitzu teknikoak, eta informazioaren gizartearen eta komunikazioen arloko jarduerak. Baita ere, jarduera Programa arautzen duen Foru Dekretuaren I. eranskinean sartu diren EJSN 2009ko sailkapeneko epigrafe batean kokatzen bada.</p> <p>Enpresa onuradunek honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaian izatea. • Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. • Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana. 											
<p>Diruz lagunduko den egitatea (4. art.)</p>	<p>Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontrasteari buruzko Txostenari erantzuten dioten finkatze-proiektuak (2B) diruz lagunduko dira, baldin eta proiektuotan aplikatu eta ezarriko diren metodologiek eta tresnek lehiakorrago izateko aukera ematen badiote enpresari, Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat, eta dekretu arautzailean ezarritako puntuazio-irizpideak gainditzen badituzte.</p>											
<p>Diruz lagundu daitezkeen gastuak (5. art.)</p>	<p>Kanpoko aholkularitza-enpresekin kontratatzea hartuko da diruz lagundu daitezkeen gastutzat, baldin eta gastuon xedea kudeaketa hobetzeko aurkeztu den proiektuaren barruko jarduketak egitea bada.</p>											
<p>Laguntzen zenbatekoa (6. eta 12. art.)</p>	<p>Diru-laguntzaren gehieneko oinarria 12.000 € izango da. Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, portzentaje hauek aplikatuko zaizkie diruz lagun daitezkeen gastuei:</p> <table border="1" data-bbox="316 1261 1473 1417"> <thead> <tr> <th rowspan="2">Kategoria</th> <th colspan="3">Laguntzaren gehieneko %</th> </tr> <tr> <th>0-49 puntu</th> <th>50-65 puntu</th> <th>66-100 puntu</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Proiektuari lotutako kanpoko gastuak</td> <td>0%</td> <td>40%</td> <td>60%</td> </tr> </tbody> </table> <p>Emango den kopuruaren % 100a laguntzaren emakida onetsitakoan ordainduko da.</p>	Kategoria	Laguntzaren gehieneko %			0-49 puntu	50-65 puntu	66-100 puntu	Proiektuari lotutako kanpoko gastuak	0%	40%	60%
Kategoria	Laguntzaren gehieneko %											
	0-49 puntu	50-65 puntu	66-100 puntu									
Proiektuari lotutako kanpoko gastuak	0%	40%	60%									
<p>Araudia eta diru-laguntzak emateko araubidea</p>	<p>26/2019 Foru Dekretua, martxoaren 20koa (BAO 58zk. 2019ko martxoaren 25koa). Diru-laguntzak norgehiagokarik gabeko araubidean emango dira.</p>											
<p>Epeak (7. eta 8. art.)</p>	<p>Diru-laguntza jasotzen duten proiektuak: 2019an hasi beharko dira eta 2020ko urriaren 1a baino lehen bukatu.</p> <p>Eskabideak aurkezteko epea: 2019ko apirilaren 8tik irailaren 30eko 13:30etara arte, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (www.bizkaia.net/sustapena-BulegoBirtuala). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, ONA, NAN elektronikoa, FEA...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea; ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke.</p>											